

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2013ko martxoaren 4an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

13.- KARTOI ETA PAPER BILKETARAKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

Kartoi eta paper bilketarako kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2012ko urriaren 15ean, Tokiko Gobernu Batzarrak zerbitzu kontratu honen baldintza-agiriak onartu eta deialdia zabaldu eban.

Bigarrena: Iragarkia 2012ko azaroaren 16an argitaratu zan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Egun berean, iragarkia eta plegu teknikoa eta administratiboa Bermeoko udalaren web orrian argitaratu ziran.

Hirugarrena: Onartutako pleguetan akats batzuk egon ziranez, Tokiko Gobernu Batzarrak plegu zuzendua onartu eban eta iragarki barri bat argitaratu zan abenduaren 19ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Argudioak

Lehenengoa: Urtarrilaren 8an, hiru enpresetako proposamenak jaso ziran udalean: CESP A, S.A., INBISA SERVICIOS Y MEDIOAMBIENTE, S.A eta DESTRU DATOS CONFIDENCIAL, S.L._Jarraian, lehiakide guztien A gutun-azala (kaudimen teknikoa eta ekonomikoa) errebisatu zan. Ondo egozala ikusita, B gutun-azala (proposamen-teknikoa) aztertu zan eta euren proposamenen puntuazioa egin zan.

Bigarrena: Urtarrilaren 25ean, Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko kontratazio mahaiak hiru enpresei gonbitea luzatu jaken B gutun-azalaren balorazioa azaltzeko eta, era berean C gutun-azala (proposamen ekonomikoa) ofizialki zabaltzeko. Hona hemen hasierako prezioa eta hiru enpresek egindako proposamenak, danak BEZ barik:

Lizitazio prezioa: 26.516 €

CESP A, S.A.: 25.196,64 € (-%5a)

INBISA, S.A.: 10.641,99 € (-%60a)

DESTRU DATOS, S.L.: 21.212 € (-%20a)

Hirugarrena: Inbisa enpresak aurkeztutako eskaintza ekonomiko baxua ikusita, 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikulua arabera, eskaintza hori neurritz kanpokoak izan zitekeela ikusita, urtarrilaren 29an Inbisari gutun bat bidali jakon hiru eguneko epean, 3/2011 Lege Errege Dekretuaren 152. artikulua ezarritakoa bete dezan, hau da, bere eskaintza ekonomikoa justifikatzeko informazioa aurkezteko. Eskatutako informazioa otsailaren 4an heldu zan udalera.

Laugarrena: Aurkeztutako justifikazioa ontzat hartu ondoren, behin betiko puntuazioa holan geratu zan:

	CESPA	INBISA	DESTRUDATOS
Prezioa (%60)	25,3 puntu	60 puntu	30,1 puntu
Hobekuntzak (%40)	34 puntu	29,2 puntu	30 puntu
GUZTIRA	59,3 puntu	89,2 puntu	60,1 puntu

Hori horrela, kontratazino mahaiak kontratua Inbisa enpreseari esleitzea proposatu eban eta falta ebazan agiriak eta behin betiko bermea aurkezteko errekerimendua egin jakon.

Bosgarrena: Errekerimenduan eskatutako dokumentazioa aurkeztu dauanez eta behin betiko bermea ipini dauanez, esleipena egin leike.

Erabagia

LEHENENGOA: Kartoi eta paper bilketako kontratua Inbisa enpresari esleitzea 10.641,99 eurotan (BEZ kanpo), proposatu dauzan hobekuntza danakaz.

BIGARRENA: Enpresa esleipenduna administrazio honen bulegoetara etorriko da, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Kontratua 10 egun balioduneko epean formalizatuko da, esleipena jakinarazten den eguneko biharamunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA: Lizitatzaille guztieri esleipen honen barri emotea eta web orrian be argitaratzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, Bermeon, 2013ko martxoaren 11n.

ONETSIA
ALKATEA